

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2023ko uztailak 7 · 1278 zenbakia



HARAGI ETAMETAL USAIN BAKARRAK

MERKEALDIA

2MÓ 79€

LEHEN 99€

GRADUATUAK

Kartuak hurrengoan bakarrik erabilgarriak



Bidebarrieta, 2
943 20 05 22
EIBAR



eskatu hitzordua WhatsApp bidez

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua



Gastro & Relax

RIFAK SALGAI kalean eta honako tokietan

- ISASI Okindegia
- ZABALETA Okindegia
- BOLINTXO Okindegia
- MARIA OSPITXAL
- UNTZAGA Prentsa
- ECHETTO Prentsa

- MUGIKA Harategia
- OTEGUI Harategia
- KULTU Taberna
- ZUBI GAIN Taberna
- GURIDI Taberna
- IZADI Loradenda



eta kitto!
euskara elkartea

**Sagardo eguneko
SARIA**

Prezioa: 1€

Zbk:

**Sagardo eguneko
SARIA** Urriaren 28tik 29ra

- HOTEL DE LONDRES Y DE INGLATERRA
2 laguntzako gaua + aforaia + armosua (28tik 29ra)
- ARIMA Hotel & Spa. Gastro&Relax esperientzia
Spa 90 minutu + bazkaria (urriaren 29an)

Prezioa: 1€ Zbk:

eta kitto!
euskara elkartea

ZOZKETA
SAGARDO EGUNEAN
gingo da (**urriak 7**),
Iluntzean, Untzaga
plazan

Saria jasotzeko irizpideak
urriaren 14ra arteko epia
sareko du lekurik 12.00ak
arte. Tel. 856.704.387

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Jokin Azpiazuk (Olor) ikuskizun berezia eskaini zuen atzo San Andres elizako klaustroan Maialen Belaustegiren (Dodoma), Ander Barriusoren eta zenbait gonbidaturen laguntzarekin. Musikariak 'Esperantza' diskoa kaleratu zuen iaz eta horren eta beste hainbat gauzaren inguruan egin digu berba.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Eibar eta Zumaia arteko zerbitzua hobetzeko

2022aren amaieran hasi genuen Eibar eta Zumaia arteko tren zerbitzua hobetzeko kanpaina. Bertan eskatzen dugu astean zehar Zumaia eta Eibar arteko zatiaren maiztasuna handitzea, hau da, orduro izan beharrean, ordu erdiro izan dadila. Gure eskaera gutxienekotik hasi dugu, gure uste apalean egunerokoan ezinbestekoak diren ordu tarreak indartu beharko lirakeelako behintzat, hau da, puntako orduak: goizez (07:00-09:00), eguerdian (13.00-16.00) eta iluntzean (19.00- 21.00).

Helburu horrekin, Debarrena, Urola erdia eta Urola kostako hainbat herritan eta auzotan sinadura bilketa egin dugu: Zumaia, Arroa Behea, Deba, Mutriku, Mendaro, Altzola, Elgoibar eta Eibarren, hain zuzen ere. Guztira 5.676 sinadura jaso ditugu. Sinatzera animatu diren askok maiztasun ugarietze hori egun guztirako, eta baita asteburuetarako ere, eskatu beharko genukeela diote.

Gaur egun, Zumaia eta Eibar artean trena orduro dugu bi noranzkoetan. Eibar eta Bilbo arteko zerbitzua ordu erdiro dagoenean (egunaren zati handi batean Elgoibartik hasita), eta baita Zumaia eta Donostia artekoa ere. Donostia-Bilbo ibilbide guztian, Altzola, Mendaro, Deba eta Arroa Behea bakarrik geratzen dira 30 minutuko zerbitzu hori gabe.

Trenaz gain, autobusak daude Deba eta Eibar artean (Mallabia-Ondarroa linea), baita Zumaia eta Deba artean ere (Ondarroa-Zumaia linea). Lehenengo kasuan, autobusak orduro daude, baina ia trenaren ordutegi bera dute. Bigarren linea, aldiz, bi eta hiru ordutik behin baino ez dago, eta trenaren ordutegiarekin bat dator.

Gure ekimenaren arrakasta ikusita, Debarrenako, Zumaiaiko eta Zestoako alkateek gure kanpaina babestu zuten, eta babes horrekin ekainaren 2an Eusko Jaurlaritzara helarazi genuen gure eskaera. Ekainaren 15ean erantzuna jaso genuen, esanez Euskotreni helarazi ziotela gure eskaria. Eta ekainaren 19an Euskotreni egin diogu eskaera, milaka herritarron eskariarentzat irtenbide egokia izango dugulakoan. Guztion artean hobetu dezagun garraio publikoa!

Euskotren 30 minuturo plataforma

Astean esanak



Arrazoi zuen gure amona zenak: “Baina, horiek guztiek ez al dute etxerik?”, barru-barrutik ateratzen zitzaion, edonongo jende-andana ikusita. Bada, amona, gaur bai ‘flipatuko’ zenukeela. Etxean ez da ‘ni krixto’ geratzen opor garaian. Herritarrek gaizki begiratzen dizute gutxienez astebetetz zure pertsiának itxi eta desagertzen ez bazara, bestea miseriaren adierazle baita. Eta dirua? gal-detuko zenuke. Oporretako irtenaldia ez da jada aberatsen kapritxoa, edo langileon eskubide bat, komunitateak ezartzen duen obligazio bat baizik. ‘Aupa Etxebeste’ zerutik ikusiko bazenu, orduan ulertuko zenukeen akaso.

GAIZKA LASA, zutabegilea

‘Ruta Quetzal’ izeneko jardunaldi ospetsuan emaitza akademikoei buruzko baldintzak aldatu egin behar izan dituzte, bestela espedizioan parte-hartzaile guztiak neskak lirakeelako. Jakin badakigu gaztetxo baten notak ez direla etorkizuneko ibilbidearen arrakasta edo porrotaren adierazle zuzen eta automatikoa; baina irizpide hori finkatu zuten antolatzaileek eta hori da aldatu egin behar izan dutena: langa jaitsi egin dute, mutilen mesedetan. Askotan esan izan dut hainbeste kritikatu den ‘diskriminazio positiboa’ halako batean gizonen defentsan erabali beharko dela. Hauxe gure politika zuzentzen duten gizonendako mezua: zuen semeen etorkizuna aseguratu nahi baduzue, sar ezazue konstituzioan parekidetasunaren aldeko neurria, orain zuen kontra doala badirudi ere, laster gizonen aldeko neurria izango baita. Ez dut nik ikusiko, baina gertatuko da.

ARANTZA URRETABIZKAIA, idazlea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ORDIAK EGIN → Norbaiten orde zerbait egin. “Juan jatzun mutillaren ordiak egingo detsuraz, ha kanpotik dan artian”.

ORDIAZEMON → Zerbait trukean eman. “Ordiaz emongo deuat hau hik emoten badestak hori”..



Idurre Iriando

Farmaziak

BARIXAKUA 7
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
ZAPATUA 8
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
DOMEKA 9
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 10
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
MARTITZENA 11
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUAZTENA 12
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUENA 13
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
BARIXAKUA 14
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
GAUEZ BETI, 2023an, Castaño (J. Etxebarria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Faustina Gurrutxaga Ansoa.** 97 urte. 2023-06-27.
- **Dorita Sologaitua Ubera.** 90 urte. 2023-06-27.
- **Teresa Vitoria Gubia.** 94 urte. 2023-06-29.
- **Iñaki Larrea Pinillos.** 50 urte. 2023-07-01.

Jaiotakoak

- **Anthony Rodriguez los Santos.** 2023-07-18.
- **Jeyler Miguel Liria Corsino.** 2023-07-24.



Manifestazioa egingo da bihar eguerdian, gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa eta 14 ordainsaritan izatea eskatzeko

Biharko (uztailak 8) manifestazioa deitu du Eibarko Pentsionisten Taldeak, 12:00etan Untzagatik, gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa, 14 ordainsaritan ordaintzekoa izan dadila eskatzeko. Salatzen dutenez, “pentsiodunok, bizitza oso lanean eman ondoren, ikusten ari gara gure pentsioak erreformaz erreforma murrizten ari direla, eta horren ondorioz gero eta zailagoa da bizi-maila duina bermatzea, are gehiago emakume erretiratuen kasuan, ho-

rien batez besteko pentsioak gizonenak baino %36 txikiagoak baitira. Euskadiko Autonomia Erkidegoan 167.943 pentsionista ari dira 1.080 euro baino gutxiago kobratzen, eta horrek bereziki emakumeengan du eragina”. Gauzak horrela, Eibarko Pentsionisten Taldetik eibartarrei gonbidapena luzatu diete “manifestazioa Eibarko pentsionisten zapia zein 1080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatzen duen txaleko berdea” eramateko.

Ettxerat-en zozketan 2062 zenbakia izan da saritua

Sanjuanak amaitzean egin zuten *Isunen aurrean, elkartasuna* rifen zozketa, eta zenbaki saritua 2.062 izan da. 15 eguneko epea dago saria jasotzeko (bi laguntzat afaria Kasinon). Saritutako zenbakiarekin batera Ettxeratek idatzia helarazi digu: “Orain dela urtebete, ostegunetan presoan alde egiten den elkarretaratzean, bere burua kazetaritzat duen eskuindar espainiar bat bertaratu zitzaigun, probokatzera, eta probokazioaren ondorioak grabatzeko asmoz. Zorionez, ez ginen bere jokoan sartu, eta alde egin behar izan zuen. Ondoren, Ertzaintza iritsi eta gutariko bati oldartu zitzaion, honek euskaraz hitz egiteko eskatu zionean. Euskaraz berba egin nahi izatearen ondorioak: atxiloketa, gaua komisaldegian pasatzea eta ia 5.000 euroko isuna. Eskerrak eman nahi dizkizuegu, bidegabekeria horren aurrean, isuna ordaintzen lagundu duzuen guztioi”.



Eibarko Gigil Design Studiok jaso du Debabarreneko enpresa komertzial nabarmenenaren saria

Gipuzkoako Bazkondeak eskualde bakoitzeko enpresa garrantzitsuenak saritzeko ematen duen 10 Bitxiak saria Eibarko Gigil Design Studio establezimenduak jaso du. Laura Albistegi buru duen estudioan eskuz egindako osagarriak

eta dekorazioa lantzen dute. Ego Gain kalean dago eta Eibarko Dendarien Elkarteko bazkide da. Gigil Debabarreneko enpresa komertzial nabarmenena bezala saritu dute, aurreko astean hiriburuan egindako ekitaldian



Aste honetan banatu dituzte 33. Toribio Echevarria Sariak

Bio/Osasun eremuko bi enpresa-proiektuk jaso dituzte sari nagusiak Toribio Echevarria-Ekintzailletza Berritzailearen Euskadi Sarien 33. edizioan, eguazten goizean Teknikerren egindako ekitaldian. Mikrobiomik, *Ideiak/Enpresa Proiektuak* kategorian, eta Glucovibes, *Enpresa Berria* kategorian, “beraien ikuspegi berritzaileagatik eta merkatuan duten inpaktu-potentzialagatik” hautatu dituzte. LetMeCharge, Vidext Technologies eta Industrias Mail enpresak ere izan ziren protagonista, *Nazioartekotze Saria*, Eibarko Udalak emandako *Eibarko Enpresa Sari Berezia* eta

Iñaki Goenaga Aitorpena jaso baitzituzten, hurrenez hurren.

Sariak banatzeko ekitaldian Euskadiko ekintzaile-, enpresa-, zientzia-, hezkuntza- eta erakunde-erloto ordezkari ugari bildu ziren eta Eider Mendoza Gipuzkoako ahal-dun nagusiak, Jon Iraola Eibarko alkateak eta Estibaliz Hernaez Eusko Jaurlaritzako Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordeak hartu zuten parte. Esan zuten, sari hauek “ekintzailetzaren eta berrikuntzaren aldeko apustuan duten balioa azpimarratu dute, enpresa-erlaldaketa, hazkunde ekonomiko eta gizarte-ongizate estrategia gisa”.



Amañako Jaietako bidaia 4.209 zenbakiarentzat

Amañako Jaietarako dirua biltzeko bidaia baterako zozketa egin zuten aurreko zapatuan eta 4.209 zenbakia izan zen sariduna. Irabazleak nora joan (Erromara, Amsterdamera edo Lisboara) aukeratu ahalko du, baina saria jasotzeko epea 40 eguneko da (abuztuaren 10ean amaituko da).

Igogailu eta fatxadetarako laguntzak eska daitezke

Aurten ere fatxadak zaharberritzeko edota igogailuak jarri edota aldatzeko dirulaguntzak emango ditu Udalak eta, horretarako, fatxadak zaharberritzeko edota igogailuak jarri eta berritzeko obretarako dirulaguntza deialdia jarri du martxan. Aurtengo aurrekontua 190.000 eurokoa da eta dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik egongo da azaroaren 10era arte (egun hori barne). Eskera egiteko eta informazio zehatza ikusteko, www.eibar.eus webgunean begiratu.



LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEBORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29 Enkarguak etxera



• tartak
• enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



Argi berdeak piztu zituzten, Alboko Esklerosi Amiotrofikoa bistaratzeko

Ekainaren 21a Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren (AEA) Nazioarteko Eguna izan zela eta, Eibarko Bizikleta Plaza, Armeria Eskola eta Ibar-kurutzeko iturria kolore berdez argiztatu zituzten, gaixotasun horri ikusgarritasuna emateko eta herritarrek gaixotasun horren ondorioez kontzientziatzeko. Horrez gain, iluntzean talde -argazkia egin zuten Eibarko Bizikleta Plazan.



Zaborteia berriz erortzeko arriskua dagoela salatu du Zaldibar Argituk

Zaldibar Argitu plataformatik salatu dutenez, Zaldibarko zabortejiaren gaur egungo egoera “ez da 2020ko otsailaren 6koa baino hobea” eta oso kezkatuta daude. Besteak beste, “arrakalak agertu direla eta erortzeko arrisku handia dagoela” diote eta Eusko Jaurlaritzari “premia hartu behar diren neurri guztiak” har ditzala exijitzeko mobilizazioak egin zituzten aurreko astean.

Posta bidez edo notarioarekin bozkatzeko laguntzen dute Batzokian

Eibarko EAJ-PNVtik gogorarazi nahi dute uztailearen 23ko hauteskundei begira, posta bidezko botoa egiteko epea zabalik dagoela, uztailearen 13ra arte: “Egun horretan Eibarren egongo ez direla badakitenak aurretik bozkatzera animatu nahi ditugu. Modu berean, jakinarazi nahi dugu hauteskontzira joateko ezintasuna dutenek botoa etxetik emateko aukera dutela, notarioarekin eta ezelako kostu barik”. Interesa dutenei laguntzeko, Batzokian (Ego Gain 1, 1. D) egongo dira, astelehenetik barixakura, 11:00etatik 13:00era. Bestela, 943120616 telefonora deitu edo eajpnveibar@gmail.com postara idatzi dezakete.



Eguaztenean jasoko dituzte danborradetako arropak, 17:00etatik 20:00etara

Danborradaren batzordeak adituzera eman duenez, datorren eguaztenean jasoko dituzte danborradan parte hartzeko jendeari lagatako arropak (Sanjuanetan parte hartu zutenena eta asteburu honetan Amañan irtengo direnena). Danborradarako entseguak egiten den lokalera (Udalak Urkizun duen lokalera, Beistegi eraikinera) joan beharko da lagatako jantziak bueltatzera, 17:00etatik 20:00etara.



Hilaren 24ra arte eman daiteke izena HELDU! programarako

Udalaren Ekonomia Garapen, Enplegu eta Berrikuntza Sailak, Debegesa eskualdeko garapen-agentziarekin lankidetzan, HELDU! programaren bigarren edizioa garatzeko prozesua hasi du, iaz lehen aldiz egin zen ekimenak izandako emaitza onak ikusi eta gero. Enpresa-ideiaren bat dutenei hori probatzeko eta baliozkotzeko aholkularitza eta laguntza ematea da ekintzailatza-programa horren helburua. Lan-saioak irailean hasiko dira, eta izena emateko epea uztailearen 24ra arte (egun hori barne) egongo da zabalik. Interesdunek <https://heldueibar.debegesa.eu/eu/heldu/> helbidean eman dezakete izena. Arduradunen ber-

betan, “enpresa bat sortzeko ideia berritzaile bat izan eta proiektua Eibarren garatu nahi duen edonori dago zuzenduta programa. Honako jarduera-lerroak lehenetsiko dira: doitasun-ingeniaritza, industriari lotutako zerbitzuak, 4.0 industria, klima-aldaketa eta energia iraunkorra, eta kirolari aplikatutako teknologiak”.

Parte-hartzaileek ikaskuntza-prozesu erabat praktikoa garatu ahal izango dute, “emaitzak lortzera bideratua, eta arloko adituek gidatua”. Horretarako, formazioan eta aholkularitzan 100 ordu baino gehiago jasoko dituzte: 40 ordu inguru formazio espezializatukoak izango dira, 50 ordu aholkularitza-

koak eta 20 ordu tutoretza-saioetakoak. Bestalde, gai hauek landuko dituzte: negozio-ideiaren definizioa, proiektuaren zabalkundea, eta egitasmoa abian jartzeko beharrezkoak diren alderdi guztiak (baliozkotzea, estrategia, finantza-plana, marketing-eta salmenta-plana, ekipoak eta pertsonak, eta legezko alderdiak). Saiotetan zehar, besteak beste, hainbat zerbitzu eta bitarteko jarriko dira ekintzaileen esku: tresna eta metodologia berritzaileak, ekintzaileen komunitate batekin harremanetan jartzeko aukera, instalazioak, finantzabideak eta inbertitzaile potentzialekiko kontaktua, BPTD elkarteko enpresa eta erakundeekin kontrastatzeko aukera eta ikusgarritasuna eta networking-a. Gainera, hala exijitzen duten proiektuek puntako profesionalen laguntza jasotzen jarraitu ahal izango dute, EHUNDU eta MAKE IN ekintzailatza-programen bidez.

ek!

Zure publizitatea
herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus



Txirrindularitza gertutik ikustea gustatzen zitzaion Mugarzari eta 12 *Vuelta España* egin zituen Lambretta gainean, moto lotura lanetan.

Vespa motorrak Durangon konpontzen zituzten, eta Lambrettak, berriz, Enrikek. Lambretta eta Vespa motorren ezaugarriak eta ezberdintasunak azaltzen ditu.

Lambretta eta Vespa

Enrike Mugarza Idarraga
(1932 – 2022)



Mallabiko Trabaku Behekoan jaioa. Gurasoak ere mallabiarrak zituen. Gaztetan "Compresores Betiko" lantegian hasi zen lanean, Eibarren. Han zegoela, Lambretta lantegitik deitu zioten, eta bertara joan zen, motorrak asko gustatzen zitzaizkiolako. 27 urtez jardun zuen Lambrettan lanean. Hasieran katean lan egin bazuen ere, segituan motorrak probatzeko lanera pasa zuten. 1961-1973 bitartean, 12 aldiz atera zen "Vuelta España" txirrindulari lasterketan, Lambrettarekin, "enlace" modura. Betidanik izan zuen tresna zaharrak gordetzeko zaletasuna eta, pixkanaka, etxeko garajea museo prestatu zuen bildutako gauzekin.

Enrike Mugarzari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

Vespie neuk biltzen naban, arreglatzeko, Durangora, Agirrezabal. Zan lehenago ziklistia izandakoa, anai bixek, eta harek euken Vespiana. Ta nik Lambrettana. Nik hari biltzen zan hamengo Vespia eukanak, ta harek Lambrettiana hona. Ondo zertzen giñen. [Ta ze diferentzia dake Vespiak eta Lambrettak?] Bueno, Lambrettiana, nik beti, fuertiago zan, kamiñorako hau zan eskasago. Ta, ba, Lambrettia gogorragua. Ta gero, motorra, zentrala, motorra. Vespiek alde batera, ta, ba, juten zan obrerue alde batera zertuta. Oin, barriro gaur egunian lanian segitzen dabe, ta korregiduta dauke, ta oin motor politak egitten dittu. Ta zarata gitxiago euken Vespiek, porque honek dauken transmisiñue, ta kaja kanbixuakin... ta Vespiek, direktamente, erroberara eguen motorra. Zarata gitxiago, suabiagua. Ostiantzian, fuertiagua, Lambretta.

Txupinazoarekin batera egingo du eztanda Amañak

Aurreko barixakuan aurkeztu zuten aurtengo Amañako jaietarako egitaraua. Jose Antonio Alberdi Goma jaietako antolatzailearen berbetan, aurten ere egitarau "itzela" prestatu du, eta horretan lagundu duten babesle eta lagun guztiei eskerrak eman zizkien, baita Eibarko Udalari ere. Jaiak gaur hasiko dira, 19:00etako txupinazoarekin. Jon Iraola alkateak botako du, "alkatea izateaz gain, Amaña auzoan jaiotako eta hazitakoa delako".

Iraolak esan zuenez, ilusio handia egin dio jai batzordearen gonbidapenak, bere bizitzaren zati handi bat auzoan eman baitu: "Niretzat jai bereziak dira. Horregatik, alkate eta Amañako auzokide naizen aldetik, ohorea da aurten txupinazoa botatzeko arduraz izatea". Horrekin batera, antolatzaileari eskerrak eman zizkion: "Egitaraua bete-betea da, nire ustez primerakoa. Eskerrak eman nahi dizkiot *Gomari*, urtero urtero ibiltzen delako jaiak antolatzen, eta eskerrik asko baita laguntzen dioten guztiei ere. Izan ere, badakigu nolako lan handia eskatzen duen horrelako egitaraua prestatzek".

Bestalde, Amañako danborradak 32 urte beteko dituen honetan, horren arduraz izan duen Jesus Mari Olmedo Nazabal *Katak* aurrerantzean horren arduraz izango duen Luis Alberto Narvaizari lekukoa pasatu zion, zuzendari-makila eta guzti. Eta, aurkezpena amaitu aurretik, hainbat lagun omendu zituen antolatzaileak: *Kata* bera, horrenbeste urtez danborrada zuzentzen aritzeagatik, San Andres elizako parrokoa izandako Xabier Zubizarreta, iaz hil zen Kalamua Judo Manu Agirre eta "gehien" laguntzen dion Maite Markuerkiaga.

Gaur hasiko den egitarauak asteburua oso-osorik beteko du, eta datorren barixakura arte luzatuko da: egun horretan (uztailak 14) egingo da jubilatuetarako bazkaria, Unzaga Plaza hotelean, eta aurten lehenengoz Sosola baserrian egingo den bertso-merienda, Sustrai Colina eta Onintza Enbeita bertsoariekin. Urtero bezala, gaurko ekitaldi nagusia gaueko kontzertua izango da: 23:00etatik aurrera Mugi Panderoa, Kaotiko eta



Txupinazoa auzoan jaito eta hazi den Jon Iraola alkateak botako du. Eta, aurrerantzean, danborradak arduradun berria izango du.

Buhos taldeek joko dute auzoko plazan. Bihar, berri, goizeko 10:00etan zabalduko den Artisautza Azokarekin hasiko dira ekitaldiak: herri-bazkaria, pailazoak, parrillada, elektrotzaranga, kontzertua, danborrada eta Lisker taldearekin berbena egingo dira, besteak beste. **Ekitaldi bakoitzaren ordutegia 31. orrialdeko agendan** ikus dezakezue, baina adi, zapatuko bi ekitaldi aurreikusitakoa baino ordubete aurretik hasiko dira eta: 18:00etan hastekoa zen **Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren emanaldia 17:00etan** hasiko da, eta gauza bera gertatuko da **Puro Relajo** taldearen kontzertuarekin, 22:00etan hasi beharrean **21:00etan** hasiko baita. Eta, domeka ondo hasteko, salda eta txorizoa banatuko diote txosnara doan jende guztiari eta, arratsaldea girotzeko, Mexico Lindo Si Señor mariatxia ibiliko da auzoan, jarraian kontzertua eskaintzeko.

“Dena ematen duzunean oso giro polita sortzen da, eta Amañan horrela gertatzea espero dugu”

XABI ALDAZ • Kaotiko



Gaur egingo dute eztanda Amañako jaiak eta gaueko kontzertuetan burua astintzeko eta dantza egiteko aukera emango diete auzoan bilduko diren ehundaka lagunei. Mugi Panderoa taldea 20:00etatik 21:30era arituko da lehenik eta gero, 23:00etan, talde berak emango dio hasiera Kaotiko eta Buhos taldeek jarraituko duten musika emanaldiari.

Ez da lehenengo aldia izango Kaotiko taldearentzat Amañako Jaietan, 2013an jo baitzuen. Orduan talde erreferentea zen Euskal Herriko punk-rockaren munduan eta oraindik ere horrela izaten jarraitzen du. Xabi Aldaz bateria-joleak taldeak Amañako kontzertuaren aurretik dituen sentsazioen berri eman digu.

24 urte daramatzazue egurra ematen eta Kaotikok Kaotiko izaten jarraitzen du. Nola eusten diozu espiritu horri?

Hasieratik gure artean esentzia moduko bat sortu genuen eta ez da zaila izan horri eustea. Adinean aurrera egin ahala zaila da beti nortasun berari eustea, baina musikarekin lotura berdina izan dugu beti eta ez zaigu zaila izan horri eustea. Egia ere bada mugak ditugula, ez garela demaseko musikariak gauzei demaseko bueltak emateko, baina eboluzionatzen joan gara gure nortasunari eutsiz. Taldeko guztiok gustu berak ditugu, norabide berean egiten dugu arraun eta gauzak nola egin nahi ditugun argi dugu. Hori da gakoa.

Zuentzat urte asko pasa dira, baina baita hasi zinetenean alboan izan zenuten publikoarentzat ere. Eurek

hor jarraitzen dute oraindik eta belaunaldi berriak engantxatu dira. Nola egin duzue hori lortzeko?

Konturatu gara bi edo hiru belaunaldi ezberdin baten direla gure kontzertuetan eta horrek demaseko poza ematen digu. Izan ere, horrek esan nahi du hor gaudela eta gure legatua ez dela amaitzen ari oraindik. Ez dakit zergatik gertatzen den hori. Pentsatzen dut musika erakargarria egiten dugulako dela, ereserki moduko abestiak egiten ditugulako eta igortzen dugun mezua publikoan sartzen delako. Idazten ditugun letratan gustoko ditugun gauzen inguruan egiten dugu berba, eta jendea identifikatuta sentitzen da. Dena dela, musika ez da hiltzen eta rock&rollak oso bizirik jarraitzen du. Nahiz eta gaur egun reggaettoa, trapa eta horrelakoak gehiago entzuten diren, beti egongo da gure musika-estiloa entzungo duen jendea; gure kontzertuetan, esaterako, hiru belaunaldi elkartzen dira, eta beste talde batzuen kontzertuetan belaunaldi gehiago elkartzen dira.

Zuen soinua oso rockeroa da, baina azken diskoan doinu elektronikoak sartu dituzue pare bat abestitan. Nola geratu zarete saiakera horrekin?

Azkeneko diskoan zerbait ezberdina egin nahi genuen, probatzeko. Probatu dugu, ikusi dugu ukitu



Xabi Aldaz Kaotiko taldeko bateria-jolea da.

elektronikoarekin abestiak nola geratzen diren eta gustora gelditu gara emaitzarekin. Ez dakit gehiagotan egingo dugun ala ez, baina momentuan horrela gertatu zen eta pozik gaude, kutsu ezberdina ematen diolako gure doinuari. Hori bai, ez dugu horrelako abestiek in diskotik oso bat egingo, ezta gutxiago ere. Esperimentatzeko balio izan zuen.

‘Sin filtro’ zuen azken diskoa da Kaotikoren diskorik biribilena?

Diskotik diskora lana hobetzen saiatzen gara, sentitzen duguna %100 ateratzen, dena ematen, eta disko honekin oso pozik geratu ginen, demaseko soinua lortu genuelako, abestiek demaseko sentimendua dutelako eta letrek gauzak argi eta garbi lagatzen dituztelako, filtrorik gabe. Horregatik izenburua.

Oso talde indartsua zarete zuzenekoetan. Gaurkoaz zer espero dezakegu?

Beti esan izan dugu zuzeneko taldea garelara. Asko gustatzen zaigu diskoa prestatzea eta grabatzea, baina gehiago gustatzen zaigu errepidera ateratzea eta eszenatokietan egotea. Orduan, beti %100a ematen saiatzen gara, eta topera egoten publikoarekin ko-

“Konturatu gara bi edo hiru belaunaldi ezberdin batzen direla gure kontzertuetan eta horrek demaseko poza ematen digu”

nektatzeko eta esperientzia hori bion arteko zerbait bihurtzeko. Dena ematen duzunean, oso giro polita sortzen da, eta Amañan horrela gertatzea espero dugu, demaseko konexioa egotea eta jendeak primeran pasatzea.

Gainera, ez da zuen lehen aldía Amañan, ezta?

Bai, orain dela urte asko egon ginen eta Cobra taldeak ere jo zuela gogoratzen dut. Tokia oso polita da eta demaseko harrera egin zigutela gogoratzen dut. Horrela, pentsatzen dut oraingoan ere sekulakoa izango dela.




Lambretta tailerra Otaola Hiribidean zegoen eta gaur egun Ertzain-etxea dago bertan.

Asteburuan Eibar Lambrettaren euskal hiriburua izango da berriz

Asteburu honetan, bihar eta etzi egingo da Eibarko Lambretta Klubak antolatzen duen motorren topaketa. Aurretik egin diren topaketak Sankristobalگو jaiekin batera izan dira, eta jai-egitarauko jarduera batzuk ere elkarlanean antolatu dituzte auzoko jai batzordekoek eta Lambretta Klubak. Aurten, baina, ez da jairik ospatuko. Hala ere, Lambretta motorren topaketa berdin-berdin egingo dute motorzaleek.

Hemezortzigarrenez Eibarren egingo den Lambretta motorren topaketa antolatu duten Lambretta Klubeko kideek bi egunetarako plana prestatu dute. Bihar goizean goizetik entzungo dira motorzaleen motorhotsak herriko kaleetan, topaketarako izena eman dutenek akreditazio bila Untzagara joango baitira 10:00etatik aurrera. Beti bezala, eguerdiko kalejira hasi arte, Untzagan era guztietako Lambrettak ikusteko aukera ederra izango dute zaleek. Azken urteotan ia 50 partai-



de bildu ditu Eibarko topaketak: “Asko Eibar eta inguruko motorzaleak izango gara, baina Burgos eta Santanderetik urtero etortzen denik ere bada”. Eibarko kaleetan gora eta behera ibili eta gero, kostalderuntz abiatuko dira, Bergara, Zumarraga, Azkoitia, Zumaia, Itziar, Deba, Eibar... zeharkatuz eta, ondoren, Eibarrera bueltatuko dira, Azitaingo Arriarte jatetxean bazkaltzeko. Beti bezala, bazkalostean bazkide batzuk omendu eta sariak banatuko dituzte eta, arratsaldean, 18:30etik aurrera, motorren erakusketa egingo dute, Untzagan. Eguna biribiltzeko, topaketara joandakoek afari-merienda egingo dute Koskor tabernan. Domekarako plana apur bat lasaiagoa izan ohi da: goizeko 10:00etan elkartu eta eskualdean zehar ibiliko dira motorzaleak. Hori bai, hamarretakoa eta bermuta hartzeko tartea izango dute, bazkaltzeko orduan datorren urtera arte agur esan aurretik.

Herriko iragan industrialia

Topaketa honek gure herriko iragan industrialia gogoratzeko aitzakia ematen die zaharrenei, eta gazteei, berriz, Eibarren nolako gauzak fabrikatu ziren bertatik bertara ikusteko aukera.

Lambretta Locomociones S.A motozikleta-fabrika Florencio Irigoien Berrondok sortu zuen 1953an, orduan martxan zeuden LUBE eta Bultacorekin lehiatzeko asmoarekin. Batez ere Lambretta markakoak egin zituen, milaka, Italiako etxearen lizentziapean, baina 1967an Honda japoniar enpresarekin hitzarmena sinatu eta lantegiari izena aldatu zioten, *Serveta Industrial S.A., escúteres Lambretta, ciclomotores Honda y muebles metálicos* bilakatuta. Eibarko lantegiak 1984an Amurriora joan arte iraun zuen, eta 1989an desegin zuten.



IRATI ALVAREZ MALAXETXEARRIA

“Daflipank, nazatikat!”

Gazteok eta datozen belaunaldiek euskaraz gehiago nola egin genezakeen ikertzen ibili naiz azkenaldian. Aurrez banekienarekin egin dut topo: euskara zabaldu eta jasotzeko oztopoek hizkuntzarekiko atxikimendua gutxitzen dute, gaztelania edo frantsesaren mesedetan.

Alderdi batzuetan (euskara ulertu, hitz egin eta idazten duten hitzun kopuruan, esaterako) aurrerapausoak egin baditugu ere, bide luzea dugu oraindik egiteke.

Hiztuna edozein delarik ere, euskararen normalizazioan jarri nahi izan dut fokua. Euskara erabiltzen ez duten horiekin euskaraz nola egin, euskara nola bihurtu erakargarri. Erakargarritasuna, hori da giltza. Azken batean, desirek mugitzen gaituzte ekintzetara. Euskaraz hitz egitea erakargarri bihurtzen dugun heinean, jendea errazago animatuko da mintzatzera. Baina nola bihurtu daiteke euskara erakargarri? Eta nola gerturatu eta zabaldu genezake euskara herriko eremu informaletara?

Aisialdiko hizkuntzak eragin handia du gure pertzepzioan. Tontakeria badirudi ere, ez da gauza bera Doraemon euskaraz edo erdaraz jaso izana, eta gauza bera musikarekin, etab. Puntu honetan, argi dago gaur egun orain dela urte batzuk baino atzerago gaudela. Euskal Herria aztertuz, kultura euskaraz sortzen duten artista asko daude, arlo zein genero desberdinetan. Hala ere, inertziak kanpoko artistei begiratzen diegu, parean dugunari, gure gustokoa izan badaiteke ere, erreparatu gabe. Bide beretik, kanpoko jaso nahi denean, ikus-entzunezkoetan bikoizketa gaztelerara edo frantsesera mugatzen da normalean. Zorionez badira egoera honetaz konturatu eta euskara bultzatzeko ekimenak sortzen dituztenak, “Pantailak Euskaraz” edota “Zer Non Ikusi”, esaterako.

Erakunde-politika, lege eta proiektuetatik erabat aldentuz, gazteon artean erabiltzen dugun hizkuntza euskara izateko, euskara “guay” bihurtu behar dugula esan zidan behin irakasle batek. Orain dela urte batzuk gazteak (orain ez hain gazteak zirenek) hizkera modernoan sortutako “trikotzaindia”, XXI. menderako aditz trinkoen zerrenda, aipatu zidan. “Daflipank, nazatikat!”. Beste garai batzuk ziren, orain ez dakit funtzionatuko lukeen... Belaunaldi berriok beste zerbaite sortu beharko dugu etorkizunerako.

“Inertziak kanpoko artistei begiratzen diegu, parean dugunari, gure gustokoa izan badaiteke ere, erreparatu gabe”

600 ume inguru udalekuez gozatz

Ikasturtea eta San Juan jaiak amaitzearekin batera, udalekuei hasiera eman zien 600 haur inguruk ekainaren azken astean. Haur Hezkuntzan dabilzan 5 urteko umeetatik hasita, DBHko ikasleengana iritsi arte, adin askotako eibartarrek hartuko dute parte Udaleko Gazteria sailak antolatu eta Astixak bideratzen dituzten udalekuetan.

Ehundaka ume dabilta egunotan hara eta hona. Izan hondartzara, izan mendira, museora edo Gaztelekura, herriko gazteenen jarduerak ez du etenik uda hasiera honetan.

Udan Jolasean programan (Haur Hezkuntzako 5 urtekoentzat) 90 gaztetxok eman dute izena aurten eta goizetan egiten dute ekintzak hiru orduz. Oporrak Afariketean programan (Lehen Hezkuntzakoei zuzendua), ostera, 500 lagun inguru ari dira, eta asteko hiru egunetan goizez ibiltzen dira eta beste bi egunetan irteerak egiten dituzte. “11 autobus ditugu eta bakoitzean 12-14 laguneko lau talde txiki sartzen dira”, esan digute Astixakoek.

Herrian eta inguruetan

Herriko ikastetxeetan, Portalean, Gaztelekuan... herrian ditugun baliabideak erabiltzen dituzte ekintzak egiteko. “Horien artean ezin da ‘altxorren bila’ falta. Baina gero,



hezitzaileen aportazioak eta umeen iradokizunak asko hartzen ditugu kontuan ekintzak prestatzeko orduan”, dioskue Astixatik.

Kanpora joateko, inguruko herrietan aurkitu ditzakegun hondartzak eta mendiak aprobetxatzen dituzte. “Aurten zerura begira ibili behar izan gara eta Frantziako Tourrak ere gure asmoak pixka bat baldintzatu ditu”, diote Astixakoek, baina oztopo horiek ez dira muga izan ondo pasatzeko.

Lehen Hezkuntzako artean adin ezberdinetako lagunak elkartzen dira eta jarduerak horren arabera prestatu dituzte. Horrela, bigarren zikloko haurrak Atxondora joan ahal izango dira mendiaz eta igerilekuaz gozatzeko, eta baita Gammarrara eta Mintxetara ere. “Gainera, erdi-ziklokoek Armagintza Museora egingo dute bisita”, Astixakoek kontatu digutenez.

LH-ko 5. eta 6. mailako ikasleek, gainera, minbiziaren inguruko sen-



5 eta 16 urte artekoek hartu dezakete parte udalekuetan. ASTIXA

tsibilizazio kanpaina jasoko dute Minbiziaren Aurkako Elkartearen bitartez, jolasak eta bestelako ekintzak egiten.

DBH-koak surfean eta Urdaibain

Hirugarren urtez jarraian, DBH-ko ikasleek surfean aritzeko aukera izango dute Deban 'Gaztetan surf' programari esker. "Goizetan Debara joaten gara eta talde batek surfa egiten duen bitartean, beste batzuk herria ezagutzeko aprobeztatzen dute, eta gero alderantziz", azaldu digute Astixakoek. Surflariak aste honetan hasi dira eta bi txanda egongo dira, bata aste honetakoa eta bestea hurrengokoa.

Hilaren 17tik 25era, bestetik, 'Gaztetan Urdaibai' programa hasiko da. Horrela, gazteek bost eguneko akanpada egingo dute bertan eta Mundakara joateko, itsasontzian ibiltzeko eta beste hainbat ekintza egiteko aukera izango dute. "Gazteek zer egin nahi duten ira-

>>> LH-ko 5. eta 6. mailako ikasleek minbiziaren inguruko sentsibilizazio kanpaina jasoko dute jolasak eta beste ekintzak egiten

>>> Udalekuetan dabilzan 60 hezitzaileek euskarari buruzko sentsibilizazio-kanpainan hartu zuten parte udalekuak hasi baino lehen

doki dezakete eta hezitzaileekin adosten dituzte ekintzak", Astixakoen berbetan.

Guztira 53 nerabek eman dute izena surfean aritzeko eta 67 nerabek Urdaibaira joateko.

Euskararen erabilera bultzatzen

Udalekuetan euskal giroa sustatzeko asmoz, Astixako hezitzaileek

euskarari buruzko sentsibilizazio-kanpaina batean hartu zuten parte udalekuak hasi baino lehen. Horrela, udalekuetan dabilzan 60 hezitzaileek hainbat jardueran egin zituzten gero udalekuei euskal kutsua ematen saiatzeko. "Umeen artean euskararen erabilera sustatzea eta indartzea da helburua", Astixakoek diotenez.

Uda honetan ere #ElkarEkin ikasten



Udako Ikastaroen baitan jardunaldiak, topaketak zein tailerrak eskaintzen ari dira Bilbon, Tolosan, Errenterian, Iruñean, Gasteizen, Baionan eta, jakina, baita Eibarren ere. Izan ere, Udako Euskal Unibertsitateak Markeskua jauregian dauka egoitza akademiko nagusia 2000. urteaz geroztik, eta harrezkero gure herrian bertan egiten dituzten jardueren zerrenda etenbarik luzatzen jarraitzen dute.

UEU-ren ikastaro eta eskaintza guztia



Udako ikastaroak hausnarketa-gune bilakatze-ko iazko asmoari jarraitu diote aurten ere eta, betiko martxan, jakintza arlo eta gai oso ezberdinak landu dituzte parte-hartzaileek: partaidetza komunitarioa, hezkuntza-mar-ko berria eta Euskal Curricula-ma, euskal artearen historiaren bide berriak, emakumeak euskal kooperatibismoan, datu lotuak (Wikidata/Wikibase), trantsizio ekosoziala... Den-denak benetan interesgarriak eta gaurkotasun handikoak, gainera. Filosofo Euskaldunen I. Bilkura ere Markeskuan egin zen, astelehenean, baita urteroko hitzordu bilakatu den Informazio eta Dokumentazio Kudeatzaileen IX Bilkura ere. Eta Isasiko jauretze ederretik kanpora ere atera dute eskaintza 51. edizio honetan: atzo arratsaldean Arrate Kultur Elkartean egin zuten *Orri bustiak*, euskarazko literaturari buruzko saio osagarria, mahai-in-

guru ireki gisara planteatutakoa.

Matrikula erdi prezioan

Bestalde, Eibarko Udalak Udako Euskal Unibertsitateak eskaintzen dituen ikastaroak egiten dituztenentzat dirulaguntzak ematen ditu eta aurtengo deialdia zabalik dago (UEUk 2022ko irailaren 1etik 2023ko uztailaren 31ra bitartean eskainitako ikastaroak egiten dituztenentzat). Dirulaguntza horiek ikastaroetan matrikulatuta egon diren eta honako baldintza hauek betetzen dituztenek jaso ahal izango dituzte: UEUk Eibartik kanpo ematen dituen Udako Ikastaroetan, langabetua ala ikaslea izatea; Eibarren erroldatuta egotea; eta, gutxienez, %85eko asistentzia betetzea. Eta Markeskua ikastetxe nagusian eskainitako ikastaroen kasuan, Eibarren erroldatuta egotea, eta gutxienez %85eko asistentzia betetzea eskatzen dute.

Eskaerak egiteko epea ekainaren 8an zabaldu zuten eta urriaren 2ra arte egongo da egiteko aukera,

Ikastaroekin batera topaketak, jardunaldiak, bilkurak, tailerrak... era guztietako saioak egin dira egunotan Eibarren

elektronikoki, www.eibar.eus webgunearen bitartez. Dirulaguntzaren zenbatekoa matrikula kostoa-ren %50a da.

Irakasleen etengabeko prestakuntza

Udako Ikastaroak martxa betean egon arren, UEUren eskaintzak ez du etenik eta dagoeneko prest dauzkate iraila eta urria bitartean emango dituzten zortzi ikastaro, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak antolatutako *Prest_Gara* irakasleen etengabeko prestakuntzaren planaren baitan antolatutakoak: *IKTen erabilpena Gorputz Hezkuntzan* (online, irailaren 4tik 29ra); *Orientazioa Gorputz Hezkuntzan* (Iurreta, irailaren 11tik urriaren 30era); *TIKen erabilera Musika Irakaskuntzan* (online, urriaren 2tik 31ra); *Hezkidetzan alde busti* (online, urriaren 2tik 31ra); *Ikaskuntza-zailtasun espezifikokoak: Dislexia, Disortografia eta Diskalkulia* (online, urriaren 2tik 31ra); *Hizkuntzaren nahasmena* (online, urriaren 2tik 31ra); *Idazketa tai-*



Eibarko Udalarekin Markeskua jauregia egoitza akademiko bezala erabiltzeko lagapen-ituna sinatu zuen UEU-k 2000. urtean eta, diotenez, jarduera akademikoa urte osora zabaltzeko akuilu handia izan zen hori.

lerra, Lehen Hezkuntzan idazmen sortzailea lantzeko gakoak (online, urriaren 2tik 31ra); eta *Bigarren Hezkuntzan ahozko hizkuntzaren*

alderdi ludikoa landu aplikazio digitalen bidez (online, urriaren 2tik 31ra). Izen-ematea zabalik dago, www.ueu.eus webgunean.

“Esperimentazioa inoiz ez da amaitzen, baina puntu batean, osasunarengatik, ‘honaino’ esaten duzu”

JOKIN AZPIAZU • Olor



Jokin Azpiazu da Olor. eta Olor zerbait berezia da, soinuarekin, musikarekin, irudiarekin eta hitzekin hartzailea eragiten duen egitasmoa. ‘Esperantza’ diskoa argitaratu zuen iazko urtearen amaieran eta atzo izan genuen bere proposamena zuzenean ezagutzeko aukera Arrate Kultur Elkarteak antolatutako Ikus-entzunezkoen Astean, San Andres elizako klaustroan.

Maialen Belaustegiren irudiek lagunduta, Ander Barriusorekin teknikan eta gonbidatuekin, gauzak ondo berriz inoiz errepikatuko ez den saioa eskaini zuen atzo Azpiazuk. Ikuskizun bakarra izan baitzen, bakarra den bezala bere musika.

“Mundua pikutara doa”, esan izan duzu. Ostera, zure diskoak ‘Esperantza’ du izenburu. Beraz, zeren esperantza?

Pentsatzen dut oraindik gelditu daitekeela mundua pikutara joate hori. Objektiboki, mundua pikutara doa. Klima-aldaketa eta, kontu horiek guztiak hor daude mahai gainean eta hainbat gauza probatu ondoren, nabaria da sistema ekonomikoa aldatu arte ez dagoe-la hori konpontzerik. Ezin da trantsizio ekologikoa egin kapitalismoaren barruan, ez luke funtzionatuko. Diskoari ‘Esperantza’ izenburua jarri diot uste dudalako horrelako momentuetan gauzei buelta emateko gogoia pizten dela. Azken urteotan, pandemiarekin eta, asko egin da berba esperantzaren inguruan, baina niretzat esperantza ez da zerbait itsua. Ez da eseri eta gauzak ondo jarriko direla itxarotea. Zerbait egitea da, jakinda zerbait eginez gero egoerari buelta eman

ahal diogula. Beraz, hortik doa gehiago ‘Esperantza’. A eta B aldeak toki berdinean daude.

Lana kasetean eta CD-an kaleratu duzu, besteak beste, baina Spotifyn ez. Zergatik?

Disko honetarako Bartzelonako zigilu txiki batekin hasi naiz lanean (Dê O Fora discos) eta ohitura handia dute kaseteak argitaratzen. Aukera eman zidaten, eta zergatik ez? CD-a, bestetik, nahiko formatu estandarra da eta, gazteek apenas erabiltzen duten arren, helduek eta nagusiek bai erabiltzen dutela. Gainera, nahiko merkea da fabrikatzea. Biniloa, adibidez, oso garestia da eta hasieratik baztertu genuen. Kontua da gaur egun jendeak plataforma digitalak erabiltzen dituela musika entzuteko eta primeran iruditzen zait, nik neuk ere erabiltzen ditut, baina batzuek eta besteek jartzen dituzten baldintzak oso ezberdinak dira, eta nire moduko musikari batentzat ez dago alde handirik. Musika ez dut dirua irabazteko egiten, plataforma batean edo bestean izan. Orduan, diskoa Bandcampen jarri nuen eta bertan entzuleak erabakitzen du zenbat diru eman. Diru hori zuzenean doa musikariarengana, nahiz eta zati txiki bat plataformak hartu, logikoa denez. Spotifyk erabat ezberdin funtzionatzen du. Algoritmoa musikari handienak saritzeko eta musi-



Jokin Azpiazuk zuzeneko berezia eskaini zuen atzo San Andres elizako klaustroan. OLOR

kari txikiei zailtasunak jartzeko dago programatuta, eta hizkuntza txikietan abesten dutenei zailtasunak jartzen dizkie. Horrela, musikari batzuk bultzatu eta beste batzuk baztertzen ditu. Honetan guztian asko jokatzeko ez dudanez, zera pentsatu nuen: “Zer ibili behar naiz, arrastaka horrelako plataforma batean sartzeko eta lerroko azkena izateko?”. Ba, ez sartzea erabaki nuen eta kitto. Erabaki horrekin ez dut ezer aldatuko, baina momentu batean gauza batzuei ezetz esan behar dela pentsatu nuen. Ez koherentziagatik bakarrik, baizik eta ezetz esateak horren inguruan eztabaida ireki dezakeen esperantza dudalako.

Lanbidez soziologoa eta irakaslea zara unibertsitatean. Musika nola bizi duzu? Elkarri elikatzen dioten bi arlo dira, edo bakoitza bere aldetik doa?

Musika poztasunaren eta frustrazioaren aldetik bizi izan dut beti. Nire ogibidea beste bat da eta denbora eta pasio asko eskatzen dit eta, ondorioz, musikari ezin diot nahi izango niokeen denbora eskaini eta frustrazioz bizi dut. Era berean, musikak errutina eta beste kontu batzuk arintzen laguntzen dit. Niretzat lotuta doazen gauzak dira. Letretan nire hurbilpen sozio-

“Azken urteotan, pandemiarekin eta, asko egin da berba esperantzaren inguruan, baina niretzat esperantza ez da zerbait itsua”

logiko eta arrazionala igartzen da, baina aldi berean musikaren bitartez horrekin apurtzen saiatzen naiz. Bestetik, duda barik, musikari bezala egiten ditudan gauza ugari asko laguntzen didate irakaskuntzan. Beste toki batean kokatzen nau eta funtzionatzen du. Toki batean egoteak ez nau laguntzen eta, mugitzen naizenean, toki batean ikasten dudanak bestean balio dit, eta alderantziz.

Gitarrarekin hasi zen Jokin nola iritsi da Olor bezala egiten dituzun gauzak egitera?

Urte askotan zehar ibili naiz musika taldeetan jotzen (PAM, Occhi di Farfalla...). Baxua lehendabizi, gi-

BIDEOA



tarra gero... Batzuetan serioago eta beste batzuetan ez hainbeste. Momentu batean neure kabuz zerbait egiteko gogo sartu zitzaidan, ia-ia inorekin negoziatu barik. Talde batean zaudenean oso alde ona da gauzak bakarrik egin ahal ez izatea. Bakoitzak bere ekarpenak egiten ditu, hortik zerbait irteten da eta hori zoragarria da. Baina momentu batean nirea zen zerbait egin nahi nuen. 20 urte ingururekin elektronikarekin esperimentatzen hasi nintzen, baina ez nuen inoiz kanpora atera eta, orduan, hori azaleratu nahi izan nuen.

Esperimentatze horretan non aurkitzen dituzu mugak? Noiz konturatzen zara lortu nahi zenuena lortzen duzula?

Ez daukat oso argi. Uste dut batzuetan inguruneak zehazten duela hori, hau da, zure kontroletik kanpo dagoen zerbait. Adibidez, egun batzuk gehiago edukitzea nahiko zenuke gauza bat prestatzeko, baina etzirako eginda egon behar da, eta ordurako prest eduki behar duzu. Kantuei buelta asko ematea ondo dago, baina batzuetan zerbait mugak ipintzea eskertzen dut. Horregatik, mugak jartzen saiatzen naiz kontzertuak bilatuz eta abar. Hala ere, prozesua inoiz ez da amaitzen. Orain lehen sortutako kantuak hartzen ditut, buelta ematen diet eta kantu ezberdinak aurkezten ditut, eta horrela da etengabe. Uste dut hori elektronikaren abantaila bat dela. Katxarroei berdina zaie gauzak zenbat aldiz aldatzen dituzun. Gauzak aldatzeko gogoia baduzu, aurrera. Beraz, inoiz ez da amaitzen, baina puntu batean, osasunarengatik, "hoinaino" esaten duzu.

Irudiaren arloa ere lantzen du Olor-ek. Atzokoan, adibidez, Maialen Belaustegirekin. Nolako lana egiten duzue?

Maialen eta biok orain dela urte batzuk hasi ginen elkarrekin lanean. Normalean, gure lan egiteko modua nahiko organikoa da. Abestien inguruan jartzen gara (lehenago egunean aipatu genuen ondo egon daitekeela alderantzizko prozesua jarraitzea) eta hortik irteten dira irudiak. Azkeneko diskoarekin ezin izan dugu



“Nire ogibideak denbora asko eskatzen dit eta, ondorioz, musikari ezin diot nahi izango niokeen denbora eskaini, eta hori frustrazioz bizi dut”

lan asko elkarrekin egin, baina klaustroko saiorako bai prestatu genuela zerbait berezia.

Azkeneko diskoan Maite Arroitauregik hartu du parte. Mursegok eta Olor-ek egiten duten musika ikusita, elkarrekin aritzera kondenatuta zeundeten?

Maite eta biok lagunak gara aspalditik, eta beti jarraitu dut bere ibilbidea. Elkarrekin zerbait egitea falta zitzaigun, baina inoiz ez dugu presarik eduki eta horrela etorri da. Abesti hori entzun nuenean ('Polos y peteneras de Alabama', nirea ez den letra duen abesti bakarra), intonazioa eta abar, Maiterendako modukoa zela pentsatu nuen. Proposatuta nion eta ahal izan dugun moduan egin dugu, oso natural.

Ongietorriko familiek Elorriko Zenita auzoan agurtu dute ikasturtea

Arrateko irteeraren ondoren, Elorriora joan dira Ongietorri programa osatzen duten familiak. Guztira 20 haur eta helduk hartu zuten autobusa joan zen martitzenean Zenita auzoan dagoen Belaze proiektura joateko. Euskal baserriko bizitza eta baserriar ofizioa ezagutu eta natura eta animaliak gertutik sentitzeko aukera ederra izan zuten. Bertako animaliak ikusi zituzten, behiak, oiloak... baita jaten eman ere! Eta goiza biribiltzeko bertako behien esnearekin egindako jogurtak dastatzeko aukera ere izan zuten.



Euskal baserriko bizitzaz eta baserriar ofizioaz jabetu ziren Belaze proiektuan izan zirenek. Amaieran talde-argazkia atera zuten.

Arrateko bertso-afarirako sarrerak astelehenetik salgai



Iazko bertso-afariko irudia; lehen urtea izan zen Tiro Pitxonen.

Irailaren 7an, Arrate bezpera, egingo den bertso-afarirako sarrerak datorren astelehenean (uztailak 10) jarriko ditu salgai ...eta kitto!-k. Elkarteko bazkideek izango dute sarrerak erosteko lehentasuna, eta 38 eurotan egingo dira salgai ...eta kitto!-ren bulegoan (Urkizu 11 solairuartea) uztailaren 21era arte. Uztailaren 24tik aurrera, berriz, 40 eurotan salduko dira Guridin, Kultun eta Tiro Pitxonen. Aurten ere puntako laukoteak bisitatuko du Arrate gaina: Maialen Lujanbio, Onintza Enbeita, Sustrai Colina eta Jesus Mari Irazu bertsoariak jardungo dute nor baino nor Jon Mikel Mujika gai-jartzailearen esanetara. 80 sarrera jarriko dira salgai.



Musika kalean, doinuak etxe barruraino. SILBIA HERNANDEZ

Herrian pala sustatzeko bidea egiten

Atal berria sortu dute Klub Deportiboko pilota batzordean eta dagoeneko zazpi palista federatuen taldetxoak osatu dute. Orain dela egun batzuk amaitu zuten gurean bigarren antolatutako Euskal Jaiko pala txapelketa: “Iaz egin genuen lehenengoan bakarrik Eibarkoak hartu genuen parte, baina oraingoan bi mailatan banatu dugu txapelketa. Eta irekian kanpokoek ere izan dira, tartean Soraluze, Atxondo, Markina, Lekeitio, Ondarroa, Ermua... herri askotatik etorritakoak”. Bigarren edizioko torneo horretako finalak maiatzaren 20an jokatu ziren eta alde batetik, Becana eta Sastrek osatutako bikoteak Ibarbia eta Urainen aurka neurtuko ditu indarrak herrikoia kategorian eta Tota-Jurgi bikoteak Zabala eta Txirloiren aurka irekia kategorian.

David Soria, Iosu Osa, Mikel Aparicio, Jorge Lombraña, Asier Unda, Eneko Urain eta Mikel Guineak osatzen dute gure herriko federatuen zazpikotea. Bi lagunek hasitako ekimena badoa zabaltzen. Eibartik kanpo ere hainbat torneo-



II. Euskal Jaiko pala txapelketako finalistak; txapelekin bikote irabazleak.

tan hartzen dute parte: “Hamar bat izango dira”, diosku Guineak, “binaka batzuk eta zazpiaren barruan buruz-buru besteak”. “Ordu erdira” dituzten inguruko herrietan izaten dira parte hartzen eta Bizkaia aldean jokatu dute nagusiki. 3. Mailan dihardute jokatzeko eta, “nibela hartzen goazen neurrian, goraka egin eta 2. Mailara igotzea” dute helburutzat.

Irailean hasten dute denboraldia eta urtarrilera arte luzatzen da lehenengo fasea. Otsailean udaberriko sasoiari ekiten diote eta hor bikotekako eta banakako txapelketak izaten dituzte zain. Badoaz, beraz, “talde bezala urratsak egiten Eibarren pala sustatzeko asmoz. 2019an abiatu genuen bideari, Covid-ak neurri batean moztu ziguna, eutsi eta indartzeko kementsu”.



Deportiboak opor aurreko azken mendi-irteera antolatu du

Uztailaren 22tik 25erako zubian Arango Itzuliaren azken lau etapak osatuko dituzte irteera horretan izena ematen dutenek, “Bonaiguako portutik Vielhara doan ibilbidea eginez”. Bertan hain ezaguna den “Carros de Foc” bideko zati batetik zehar “Aiguestortes eta San Mauriziko parke nazionalatik” jardungo dute. Azken aldiaren egin duten bezala, oraingoan ere Klub Deportiboko mendi batzordekoek Elgoibarko Morkaiko mendizale elkartearekin batera prestatu dute irteera.

Hilaren 22an (zapatua) Bonaiguako portutik Colomers aterperaino joko dute, 10 kilometrotan 825 metroko desnibela gaindituz; egun horretan beste aukera luzeago bat ere izango da, 16 kilometrokoa, 2.861 metroko Tuc de Raterara igotzeko. Hurrengo egunean, domekan, Colomers aterpetik Restancako aterperaino bidea egingo dute, 10 kilometrotan 955 metroko desnibela gainditu eta 2.833 metroko Montardo gaina egiteko. Hirugarren egunean, hilaren 24an, Restanca eta Conangles aterpeen arteko bidea osatuko dute, 17 kilometroko ibilbidean 1.100 metroko desnibela



gainditu eta 2.813 metroko Tuc dera Canau de Rus gaina zapaltzeko; hor ere izango da ibilbide alternatiboa, 12 kilometrokoa eta 600 metroko desnibelarekin. Azkenik, behin martitzenera helduta, azken egun horretan Conanglesetik Vielhako tuneleko iparraldeko sarrerara helduko dira, horko 12 kilometrotan 1.114 metroko desnibela gainditu eta 2.606 metroko Tuc deth Port de Vielhara igotzeko.

Irteeraren prezioak honakoak dira: bazkideen kasuan, FEDME txartela dutenek 235 euro ordaindu beharko dute eta txartela ez dutenek

245 euro; bazkideak ez direnek, bestalde, txartela izan edo ez, 255 edo 265 euro. Prezioan autobusa, hiru gauak eta egun horietako gosariak eta afariak sartzen dira. Izena ematerakoan 50 euroko fidantza ordaindu beharko da eta irteeran parte hartzeko derrigorrezkoa da Espainiako estaldurarekin federatuta egotea.

Azkenik, antolatzaileek diotenez, “irteera zeharkaldi eran da eta aterpeetan bi gau eta hiru egunetarako beharrezkoa gainean eraman behar da, izara-zakuarekin batera. Gailurrak, bestalde, bide beretik igo eta jaisten direnez, hautazkoak dira”.



Joseba Etxeberria Eibar FTko entrenatzaile berria aurkeztu zuten martitzenean

Aste honetan aurkeztu zuten Ipuruan denboraldi berriari begira Gaizka Garitanoren tokia hartuko duen Joseba Etxeberria elgoibartarra. Ekitaldian Amaia Gorostiza klubeko presidentea eta Cesar Palacios kirol-zuzendaria izan zituen lagun eta, behin eta berriz adierazi zuenez, “egon nahi dudan tokian” dago aurretik maila berean Tene-

rife eta Mirandes zuzendu izan dituen entrenatzailea. Jokalari bezala urterik emankorrenak Athletic-en eman zituen Etxeberriak Bilbao Athletic, Amorebieta eta Basconia ere entrenatu izan ditu. Erronka berriari begira honakoa zioen elgoibartarrak: “Ausardia areagotuko dugu hiru zelai-laurdenetan eta hori da ikusi nahi dudana Eibar”.

19 taldek hartu zuten parte partida azkarren xake txapelketan

Hemeretzi taldek hartu zuten parte aurreko asteburuan Untzaga plazan jokatu zen 37. Eibarko Hiria xake txapelketan, tartean Eibarko hiru izan zirela. Jose Mari Kruzetaren omenez urtero Sanjuanetako jaien bueltan jokatzeko den partida azkarren torneo horretan Donostia, Errenteria, Gasteiz, Iruñea, Zornotza edo Barakaldoko taldeak izan ziren, besteak beste. Bost ordutik

gora iraun zuen txapelketan lau jokalariz osatutako talde bakoitzak 18 partida jokatu zituen eta, azkenean, Donostiako Gros Xake Taldea nagusitu zen, Errenteriako Fomento Cultural eta Iruñeako Oberenaren aurretik: lehenengoak 66 puntu bildu zituen, bigarrenak 62 eta erdi, eta hirugarrenak 55,5.

Eibarko Klub Deportiboko xake batzordeak hiru talde aurkeztu zi-

tuen, eta horiek 14., 15. eta 17. postuetan amaitu zuten. CD Eibar B taldea izan zen hiruretatik onena (21 puntu eta erdirakin), A taldearen (21 puntu) eta C taldearen (16 puntu) aurretik. Azpimarratzekoa izan zen edizio honetan parte hartu zuten emakumezkoen kopurua: “Xake txapelketetan gizonezkoen parte-hartzea ia erabatekoa izaten da, baina oraingoan taldeen erdietan emakumezko jokalaria izan dira eta, hori gutxi balitz, Azkoitiko Anaitasuna Elkarteak emakumez bakarrik osatutako taldea aurkeztu zuen”.

Mahai bakoitzeko jokalaria onenaren sariak, azkenik, honela banatu ziren: 1. mahaikoa Gros Xake Taldeko Santiago Gonzalez nazioarteko maisuarentzat, 2. mahaikoa Fomento Culturaleko Jose Ramon Ros FIDE maisuarentzat, 3. mahaikoa Groseko Aritz Abaliarentzat, eta 4. mahaikoa Fomentoko Mikel Alvaradorentzat.



Gros Xake Taldeko jokalaria txapelketaren garaikurra jasotzen Untzagan bertan.

Urbat-Urkotronikek denboraldia agurtu zuen Elxeko torneoan

Gure herriko waterpolo klubak Alacant aldean eman dio amaiera ikasturteari, bertan izan diren benjamin, alebin, infantil eta jubenil mailetako ordezkariekin. Estatu osoko 69 klub izan ziren Elxeko torneoan eta Urbateko taldeek 19 partidu jokatu zituzten guztira: 10 irabaziz, zazpi galduz eta beste biak berdinduta. Alebinek 13. postuan amaitu zuten, infantilek 11. tokian, eta kadeteak bosgarren sailkatu ziren azkenean. Bestalde, Urbateko benjamin mailako bi jokalaria Real Canoe taldearekin jokatu zuten, eta jubenil mailako ordezkari bakarrak Donostirekin.



Elxen Urbat waterpoloko talde gazteenetako jokalaria izan ziren parte hartzen.



‘Marea gora’ hitzaldi zikloa egingo da uztailean Deban, bailarako herritar guztientzat

Maiatzaren amaieran kurtsoa agurtu zuten Debabarreneko Esperientzia Eskolako 18. promozioko ikasleek *Marea gora* izeneko hitzaldi-zikloa antolatu dute uztaileko. Hitzaldiak eguaztenetan izango dira, Debako Kultur Elkartearen, 19:00etan.

Ekinaren 22an aurkeztu zuten hitzaldi-zikloaren egitaraua, Debako Agirre jauregian eta, antolatzaileek azaldu zuten bezala, zikloa bailarako herritar guztiei zuzenduta dagoenez, Deba hautatu dute solasaldiak eskaintzeko kokalekutzat eta *Marea gora* izena ere intentzio osoz jarri diote: “Mareak gora egiten duenean hondarra mugitzen du eta ura uhertu egiten da. Orduan, jendea hondartzatik joaten da, herrigunera adibidez. Guk hori nahi dugu, jendea herrira joan dadila hitzaldiak entzuterat”. Zikloa Debako hainbat eragilek elkarlanean antolatu duten *Gure Giro* programazioaren baitan eskainiko da, Debako Udalaren eta Kultur Elkartearen babesarekin. Ikasten elkarte-kideek nabarmendu dutenez, solasaldietan ibilbide pertsonal eta profesional luzea duten pertsonak izango dira protagonista eta askotariko gaiak izango dituzte hizpide. Egitaraua aste honetan zabaldu du Maria Intxaustegik (itsaspeko arkeologoa, kapitaina eta urpekari profesionala eta espedizio gidaria belaontziekin), *Antartikatik gure itsas hondoraino* izenburukoarekin. Hurrengo saioa uztailearen 12an izango da: Mikel Ayestaran kazetariak *Gaurkotasuna Ekialde Hurbilean* izenburuko saioa eskainiko du. Uztailearen 19an *Adimen artifiziala, azken iraultza teknologikoa* hitzaldia emango du Ibai Inziartek (Automozioan eta Robotikan ingeniaria). Eta uztailearen 26an *Geoparkea izan zitekeen Zentral Nuklearretik* izenburuari jarraituko dio Pako Salegik. Lehena euskeraz izango da eta beste biak gazteleraz.



Eibarko gastadoreak Lasarte Oriako danborradan

Eibarko danborradako kide batzuk Lasarte-Orian egon ziren aurreko astean, San Pedro bezperako gauean han egiten den danborradan parte hartzen. ATLO Danborradako kideek gonbidatuta joan ziren eibartarrak: “Hango danborradak ez dauka gastadorerik eta, hori dela eta, urtero gonbidatzen gaituzte, beraiekin batera jaietako danborradan parte hartzeko”, kontatu digute. Eibarren bezala, herriko plazan hainbat pieza jo eta gero, kaleetan zehar ibiltzen dira Lasarte-Oriako danborradako kideak, Eibarko danborradako gastadoreek lagunduta.



Primerako Sanpedroak ospatu dituzte Beheko Tokin

Beheko Tokia jubilatuen egoitzak antolatuta, ederto ospatu dituzte aurten ere San Pedro jaiak Karmen kalean. Martitzenean hasi ziren, bereziki umeentzat prestatutako egitarauarekin. Hurrengo egunean, berri, toka eta igel-toka txapelketak jokatu ziren eta, arratsaldean, jendetza elkartu zen Beheko Tokiko aretoan, Trio Medianocheren kontzertuan. Eta, San Pedro egunean, Gospel Bilbao taldearen parte-hartzea izan zuen meza egin zen Karmengo Amaren elizan.



Musika Bandak denboraldia agurtuko du gaur iluntzean

Andoni Vazquezek zuzentzen duen Musika Bandaren denboraldiko azken kontzertua gaur izango da, 20:30etik aurrera. Eguraldiak laguntzen badu Toribio Etxebarria kalean egingo da eta, bestela, udaletxeko arkupeetan izango litzateke. Gaur eskainiko duten kontzerturako aukeratu dituzten piezak alaiak eta biziak dira, udako gau beroak girotzeko ezin aproposagoak: The Mandalorian (Ludwig Göransson), Porgy and Bess (Arr. James Barnes), The Beach Boys Greatest Hits (Arr. Michael Brown), El Bueno, El Feo y El Malo (Ennio Morricone) eta Santana (Arr. Giancarlo Gazzani). Gaurko emanaldiarekin agur esango diote aurtengo denboraldiari, merezitako opporrak hartuko dituzte-eta.



‘Tailerretik bulegora’ erakusketa dago Museoan

Udan ere, irailaren 1era arte egongo da *Tailerretik bulegora*. Eibarko produktuak izeneko erakusketa ikustera joateko aukera, Eibarko Armagintzaren Museoan. Sarrera doan da, baina uztailean ordutegi berezian zabalduko dituzte ateak: martitzenetik barrixura, 16:00etatik 20:00etara.



Datorren barixakura arte jasoko dituzte Asier Errasti lehiaketarako lanak

Uztailaren 14an itxiko da Eibarko Udalak eta Plano Corto Kultur Elkarteak antolatzen duten Asier Errasti Eibarko XXIV. Film Laburren Lehiaketarako lanak aurkezteko epea. Bi atal bereiztuko dituzte: fikzioa eta animazioa. Izen-ematea elektronikoki egin behar da, www.eibar.eus helbidean. Lehiaketan parte hartu nahi duten norbanakoek eta elkarteek formularioa elektronikoki bete beharko dute, eta eskaerari dokumentu hauek erantsi: film laburraren sinopsi txiki bat (bi lerrotan); fotograma bat, esku-orrirako; eta film laburraren fitxa teknikoa. Ez dago mugarrik, ez aurkeztutako lan-kopuruan ezta jorratutako gaietan ere. Lan bakoitzeko eskaera bat egin beharko da. Lehiaketari buruzko argibideak ere bertan kontsultatu daitezke.


Orro Fest jaialdia egingo da gaur Gaztetxean, bost talderekin




Eibarko Gaztetxeak arratsalde-gau berezia prestatu du gaurko. Bost talde igoko dira oholtzara 18:30ean hasiko den Orro Festen, eta sarrerak bost eurotan erosi ahal izango dira, Gaztetxean bertan. Hauek dira Orro Festen arituko diren taldeak: Llama a la pasma (death mental, Abadiño), The Red Army (HC/Street Punk, Ermua), B.D.S.M. (hard folk, Ermua), Konorte (hardcore, Durango) eta TKM (punk anisatua, Bilbo).

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		3		4	5	
5			1			
	8	2	5	3		1
	1		2	6		5
5						8
3	6	5		7		
1	9	7	6	2		
		1				9
2	5		3			



soluzioa



soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

				3	6	1	
2	1			7	4		
	3		8	4			
		9				3	2
8							4
7	2				5		
			2	8		5	
			4	3			2
							1
5	2	1					

**S
U
D
O
K
U**



MARGOTZEKO AUKERA

Uztailak 7/13

BARIXAKUA 7

AMAÑAKO JAIAK

18:30 Kuadrillen jaitziera, dorreetatik Amañako plazaraino, Ermuko Irulitxa txarangarekin.
19:00 Txupinazoa, Jon Iraola Eibarko alkatearen eskutik.
19:15 Umeen danborrada, Amañako plazan.
20:00/21:30 Arratsaldeko kontzertua: Mugi Panderoa.
23:00 Kontzertu itzela: Mugi Panderoa, Kaotiko (Euskal Herria) eta Buhos (Katalunia) taldeekin. Oharra: Txosnan ogitarteko eta pintxo zerbitzua egongo da. Amaña.

KONTZERTUAK

18:30 Orro Fest: Llama a la pasma (death mental, Abadiño), The Red Army (HC/Street Punk, Ermua), B.D.S.M. (hard folk, Ermua), Konorte (hardcore, Durango) eta TKM (punk ganizado, Bilbo). Eibarko gaztetxean.



KONTZERTUA

20:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Toribio Etxebarria kalea.



ZAPATUA 8

AMAÑAKO JAIAK

10:00/15:00 Artisautza Azoka, Amañako plazan.
14:30 Herri-bazkaria: paella. Plazan bazkaltzen ez duenari ez zaio edaririk zerbitzatuko.
17:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan saioa.
20:00 Parrillada: saiheskia, txorizoa, oilasko-hegalak...
20:00 Elektrotxaranga: Distopia.
21:00 Kontzertua: Puro Relajo.
23:00 Helduen danborradaren irteera.
00:00 Danborradaren iritsiera Amañako plazara.
00:50 Berbena, Lisker taldearekin. Amaña.

LAMBRETTA EIBAR XVIII. TOPAKETA

10:00/12:00 Parte-hartzaileen akreditazioak Untzaga plazan.
12:00 Kalejira Eibarko kaleetan zehar.
12:30 Ibilbidearen hasiera kostalderantz, Bergara, Zumarraga, Azkoitia, Zumaia, Itziar, Deba, Eibar... zeharkatuz.
13:30 Eibarrera buelta eta bazkideen bazkaria Arriarte jatetxean.
14:30 Bazkaria eta sari-banaketa.
18:30 Untzagara buelta eta Lambretta motorren erakusketa.
20:00 Afari-merienda Koskor tabernan.



MANIFESTAZIOA

12:00 "Gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa, 14 ordainsaritan" manifestazioa, Eibarko Pentsionisten Taldeak antolatuta. Untzaga.

DOMEKA 9

LAMBRETTA EIBAR XVIII. TOPAKETA

10:00 Irteera eskualdetik eta hamarretako-bermuta.
14:00 Agurra, hurrengo urtera arte.

MUSIKA

10:30 Usartza Txistulari Taldearen kalejira. Amaña.



AMAÑAKO JAIAK

12:15 Saldia eta txorizoa txosnan.
17:30 Txokolate-jana, Eroskirekin elkarlanean.
17:30 Kallejonada, México Lindo Si Señor mariatxiarekin.
18:00 Kontzertua México Lindo Si Señor mariatxiarekin.
19:00 Ogitartekoak salgai (1€).
19:30 Amaña es la Caña elkartean sari-banaketa.
20:00 Berbena.
22:00 Jaien amaiera. Amaña.

ERAKUSKETAK

Irailaren 1era arte:
 - "TAILERRETIK BULEGORA. EIBARKO PRODUKTUAK". (Armagintzaren Museoa).



Eskualdeko Agenda

DEBA

7an (BARIXAKUA)
BERTSO-SAIOA
22:00 / Plaza Zaharra
 Oihane Perea, Miren Artetxe, Joanes Illarregi, Amets Arzallus.

ERMUA

SALLABENTEKO JAIAK



ELGOIBAR

URASANDIKO JAIAK

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **8an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **9an:** 17:00, 20:00
- **10ean:** 19:30

"Ruby. Aventuras"
ANIMAZIOZKOA



2023/AEB/90'
Zuzendaria: Kirk DeMico
Itsas-abentura/Sirenak

2 ARETOA

- **8an:** 16:30, 19:15, 22:30
- **9an:** 17:00, 20:00
- **10ean:** 19:30

"Indiana Jones"
ABENTURAZKOA



2023/AEB/154'
Zuzendaria: James Mangold
Aktoreak: Harrison Ford, Mads Mikkelsen, Phoebe Waller-Bridge
Akzioa/Sekuela

ANTZOKIA

- **8an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **9an:** 17:00, 20:00
- **10ean:** 19:30

"Vacaciones de verano"
UMOREZKOA



2023/Espainia/120'
Zuzendaria: Santiago Segura
Aktoreak: Santiago Segura, Leo Harlem, Sirena Segura
Komedia/Zine familiarra



Iñaki Larrea Pinillos

"GUREAK lantegiko lagunek eta IKASTOLAKOek faltan botako zaitugu"

- BESARKADA HAUNDI BAT FAMILIARENDAKO -



FUNEUSKADI
Grupo Baskara



TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funeraria



TANATORIO HEMEROSIO EGOITIA

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leiza · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **MALEN**txo!!!
Astelehenian 7 urte beteko dozuz-eta. Patxo potolo bat famelixaren partez!!!



Zorionak, **JON!**
Eguaztenian 9 urte bete zenduazzen-eta. Zorionak famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **NOA!**
Domekan 8 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, bereziki, Markel eta Unax zure lehengusuen partetik.



Zorionak, **TELMO,**
astelehenian urtetxua beteko dozulako. Millaka musu gure terremoto txixixarentzat, etxekuen partez.



Zorionak, **LUKEN** (bixar 8 urte beteko dozuz) eta tia **SILBIA** (aurreko zapatuan 48 urte). Ondo ondo ospatu. Musu haundi bana famelixaren eta lagun partez.



Zorionak, **IZEI,** zure 8. urtebetetzian. Mordua maite zaittuen famelixa guztiaren partez.

ARRATEKO
**BERTSO
AFARIA**



irailak 7 | **LEGUENA**

TIRO PITXON JATETXEAN / 21:00etan



Maialen
Lujanbio



Jesus Mari
Irazu



Oñintza
Enbeita



Sustrai
Colina

Sarrerak salgai **BAZKIDEENTZAT** uztailaren 10etik 21era ...eta kitto!-n (38€)
Uztailaren 24tik aurrera Guridin, Kultun eta Tiro Pitxonen (40€)

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Eibarren. 943031363.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garajea salgai Amañan. 665726895 eta 688767198.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Erizaintzako teknikari laguntzailea eskaintzen da nagusiak zaindu edo pasiatzera ateratzeko eta garbiketarako (etxeak, pegorak, bulegoak,...). Orduka. 612460920.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioarekin). Interna. 697754174.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioarekin). Interna. 604986450.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioarekin). Interna. 612554744.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri soziosanitarioa). Esperientziarekin. Orduka. 642855788.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Interna. 602592092.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta oporretako ordezkapenak egiteko. 631425686.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 641756213.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 697958198.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta animaliak pasiatzeko eta animaliak pasiatzeko. Orduka. 697958198.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta peorak edo etxeak garbitzeko. 665598721.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 610067042
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624910331.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko ekainean eta uztailoko lehenengo astean. 646057965. Miren.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin) Eibar eta inguruan. Orduka. 602490595.
- Neska eskaintzen da asteburuetan lan egiteko. 651432384.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. 641988643.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ziurtagiri sozio-sanitarioarekin. Externa. 602398328.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientziarekin. 676553093.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 632881068. Jessi.
- Gizona eskaintzen da pintore, peoi... lan egiteko. 631509262.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin), baita ospitalean ere, eta etxeak garbitzeko. Orduka. 667060292..

4.2. Langile bila

- Odontologo behar da hortz-klinika batean. Formazio aukera eta talde-lanean jardutekoa. Bidali curriculum-a: dentalweb@hotmail.com
- Martxan dagoen taberna eskuragarri. Baldintza onak. 645109141
- Dendaria behar da Eibarko moda-denda batean. Jornada erdiz (goizez). Bidali curriculum-a: eibardenda@yahoo.com
- Aho eta hortzetako higienista behar da. hortzclinika.06@gmail.com
- Administratibo komertziala behar da arratsaldez lan egiteko. Bidali curriculum-a: akomertziala@gmail.com
- Pertsonea behar daidazkarilanak, errekaduak etabar egiteko. 622183411. luengo41@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Eibar BHI-ko DBH 3. mailako Gizarte eta Ingelesko liburuak salgai. 615712216.
- Biniolozko diskoak, LPak eta singleak erosten ditut. 688624326.

ego-gain, 6

KONTENT

943 11 86 91



RESTAURANT • KAFETEGIA
PINTXOAK • TASKA • PUB
Elkarrekin Kontent egotekoll

AMAÑAKO JAIK

UZTAILAK 7-8-9-14

Larragest

IMOBILIMIA • CONDOMINIO DE BILBO

Amañako Jaixen alde



Asteburua? Amañan, jakina!



HELDU!

Ekintzailetza berritzailea
Emprendizaje innovador



EIBARKO EKINTZAIETZA PROGRAMA

ZURE ENPRESA-IDEIA ZEHAZTEN LAGUNTZEN DIZUGU

+ FORMAZIO espezializatuko 40 ordu

+ AHOLKULARITZA adituko 50 ordu

+ TUTORETZA pertsonalizatuko 20 ordu

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: UZTAILAK 24

EMAN IZENA!

*Ezagutu aurreko edizioko parte hartzaileen
esperientziak QR estekan sakatuta*

